




URKETA

# Ardanabiko bartak



Distantzia <b>7,1 km</b>	Desnibela <b>30 m</b>	Iraupena <b>2h30</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarriak <b>PR eta GR8 seinaleak</b>
-----------------------------	--------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Baionako kanpoaldean, zoaz Ametzondo merkataritza gune ingurutara (Pauera buruz), eta segi Baiona zentrorra, Lehuntzera eta Urketara buruz. Aturri bazterreko biribilgunean, segi Lehuntze, Urketa eta Ahurtira buruz. 2 km autoz iragan ondoan, hartu ezkerreko D261 errepidea Ahurti eta Lehuntzera buruz. 5,5 km urrunago, utz Aturri eta igan eskuin Urketara buruz (D361). Muinoaren kaskoan, itzul esker (D257) herri zentrorra heltzeko. Aparkalekua Herriko Etxeko plazan.

GPS datuak : **UTM : 634500 - 4816075 Lat/Long : 43.48548/-1.33672**

**U**rketa kasko batean kokatua da, Ardanabia erreka eta Aturriko barten gainaldean; bartak, urak har ditzakeen pentzeak dira. Arroilak, dikeak, ubideak eta tapadun atek maren eragina menderatzeko dira, alabaina ura lurretan sartzen da Aturriko estuariotik eta haren ibaiadarretik. Ardanabian gauza bera gertatzen da eta uraren heina zenbait minututan asko alda daiteke, edo korrontea errekan gora igan daiteke.

Zaldiak alhatzen diren Altzuetako bartetatik Ardanabiko ur-bazterretara, ibilaldia izigarri goxoa da eta ez da maren gorabeherez trabatua. Bazter batean edo bestean dikeak badira, zirga-bidea eta bizikleta-bidea, izadian barna ibiltzeko, uraren, pentzeen eta oihan hezeen artean. Ibilaldi bukaeran gaikako taula batzuek lekuko fauna eta flora aurkeztuko dizkizute.



## 1. ZATIA > Urketatik Ardanabira


UTM : 634500 - 4816075

Urketako Herriko Etxeko aparkalekuaren zolan, jauts ezazu hilerriaren eta tenis jokalekuaren arteko karrika. Beherean, iragan zaitetz kirol-zelaiaren, errebotearen eta futbol-zelaiaren eskuinetik. Zelaitik atera kontrako izkinatik, eta errepidera helduko zara: segi ezazu eskuinetik 80 m-tan eta itzul ezker, Iholdi karrikan. Auzoa zeharka ezazu eta Linagua zalditegiaren parean, har ezazu ezkerreko bidexka belartsua. Bazkaleku heze baten bazterreko diketik iragaten da, eta Altzuetako errekaaren arroilaren bazterretik.

## 2. ZATIA > Ardanabiko bazter batetik bestera

UTM : 635926 - 4816413

Ardanabiko errekaaren bazterreko bide on batera helduko zara; segi ezazu ezkerretik 1,2 km-tan (osagarri ibilbideko tresnak). Ibil zaitetz oinezko zubixkaraino, trenbide-zubia aitzin, eta beste aldera pasa zaitetz. Beste aldean, segi zirga-bidean eskuin errekan gora igateko. 2. km-aren mugarri ondoan, ez kasu egin ezkerreko xendrarri eta segi ezazu zuzen zirga-bidean 3. km-ren mugarria iragan arte, eta errepidera helduko zara.



## 3. ZATIA > Erreka gainaldea eta Urketara itzultzea

UTM : 635832 - 4816041

Hartu eskuineko errepide-zubia eta kasu eginez ibil zaitetz D257 errepidean 80 m-tan. Aparkalekuetara heltzean, zeharka ezazu errepidea eta ezker beste xendra bat abiatzen da (bazterrak ezagutzeko xendra), Lehuntzera buruz (GR8 seinalea). Piknika mahaia iragan eta ez kasu egin zurezko zubixkari; segi bidexka errekaaren eskuineko aldetik, maiz argibide-etaulak atzemanen dituzu izadiari buruz. Urrunago etxe baten eta Tourterelle zubixkaren artean iraganen zara (GR8 ibilbidea) eta segi zuzen bidean. T formako bidegurutzean segi eskuineko bidexkatik, 100 m urrunago ezkerrean itzultzen da, eta Urketako etxeei buruz itzultzen. Eskuin den azken igokerak Herriko Etxera eramanen zaitu.



IBILBIDEEN TOPOGIDA

### INTERESGUNEAK

#### ❖ Ardanabia erreka (2,6 km)

Ardanabia erreka 26 km luze da, eta iturria Hazparneko landetan du; Urketako Aturriraino doa. Ozeanoaren maren eragina sendi da Tourterelle zubixkaz haratago (gero iraganen zara bertatik), horregatik du kolore nahasia alubioiz kargatua den urak. UTM : 365901 - 4816848

#### ❖ Zirga-bidea (3,4 km)

Erreka baten aldean, ibilbidea lehengo zirga-bidetik iragaten da; gorago kokatua den igeltsu-harri harrobitik harri mokorrak garraiatzen ziren bertatik. Mugarriak ikusiko dituzu ibilbidean gandi, eta zuhaitz mota desberdinak: lizarrak, platanok, haltzak, sahas negartiak eta eukaliptoak. UTM : 635809 - 4817014

#### ❖ Pentze hezeak (5,75 km)

Argibide-etaula franko bada erreka gainaldean, eta horietarik bat pentze hezei buruz ari da, bartei buruz, erregularki urak hartzen baititu eurialdian. Bartetako landare mota ugariak intsektuei, pinpirinei eta txoriei ostatu ematen die. UTM : 635244 - 4815662

### ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- 4,8 km: Ardanabiko aparkalekua, erne egon bide bazterrean eta 257 departamenduko errepidea zeharkatzerakoan. UTM : 635832 - 4816041  
- Uholde arriskuko eremuak

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Urketa, Herriko Etxeko aparkalekua, piknika mahaia, haurrentako jokoak UTM : 634500 - 4816075  
- 4,9 km: Ardanabiko ur-bazterrak, piknika mahaia, ura UTM : 635759 - 4815949



# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guziren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Gainera izan zaitez garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinalea errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarri jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65

- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02

- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoarekin.